

DIRU ITURRIAK

Imanman egin ahal izateko diru sarrerak eskuratu beharko ditugu, horretarako inbertsoreak izaten saiatuko gara. Inbertsore horiei gure ideiak azalduko dizkiegu diru sarrerak eskuratu ahal izateko eta diru sarrera horiekin proiektua hasi ahal izateko.

Gure enpresaren diru sarrerak bi sailetan banatzen dira: ateen instalazioa eta hauen mantenua. Izan ere, gure sarraila propioa sortu dugunez, sarrailagileek ez dakite ate hauen mantenua egiten ezta matxurak konpontzen ere.

Horregatik hasiera batean diru sarrera nagusiak ateen instalazioak ematea espero dugun arren, (ateen instalazioa beraren mantenua baino garestiagoa delako) ateak instalatzen joan ala, mantenua egiteko ate gehiago edukiko ditugu instalatzeko edukiko ditugunak baino, honek gure diru sarreren balantza aldatuko du. Hau da, orduan eta ate gehiago saldu, mantenua egiteko ate gehiago izango ditugu beraz, ateen mantenuak sortutako diru sarrerak igoko dira.

Hori dela eta komenigarria iruditzen zaigu hasieratik ate asko jartzea, horrela etorkizun batean ate gutxiago instalatuko baditugu ere jada instalatutako ateen mantenua egiten diru sarrerak lortuko ditugu. Horregatik interesgarria iruditzen zaigu jendeari erraztasunak ematea gure ateak erosteko. Horrela, nahiz eta hasiera batean irabazi gutxiago lortu, mantenuarekin lortutako irabaziak handiak izango dira hasieratik.

INBERTSIORAKO PONDERAKETA

Enpresa martxan jartzeko hainbat hasierako inbertsio egin beharko ditugu. Lehenik atek sortzeko makina bat beharko dugu baita makina hau gordetzeko tailer bat ere. Ateak egiteko lehengaiak eta jada instalaziorako prest dauden atek ere bertan biltegiatuko ditugu.

Gainera atek etxez etxe banatzeko furgoneta bat ere beharko dugu. Hasieran bakarrarekin nahikoa izango dugula espero dugu baina eskaerak gora egin ahala bat baino gehiago beharko ditugu.

Enpresa aurrera joan ahala, negozioa zabaltzen joateko asmoa dugu. Hasieran Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan lan egiteko asmoa dugu, baina denborarekin penintsula osora zabalduko gara. Honetarako beste tailerren bat ireki beharko dugu.

Enpresa Espainia mailan zabaltzen hasteko gai garenean tailer desberdinak irekitzeko asmoa dugu Espainia osoan zehar denda ezberdin eta tailer desberdinak irekiz.

Imanezko sarraila duten etxeetako atek fabrikatzeaz gain, imanezko sarrailadun leihoak, takilak, armairuak... fabrikatzen hasteko asmoa dugu. Honetarako hainbat inbertsio egin beharko ditugu.

Gainera, enpresa egonkortu ahala imanen munduan sartzea pentsatu dugu, imanak erosita baina merkeago lortzeko eta horrela gure ateen kostuak gutxitzeko.